

ELIXABETE GARMENDIA eta ESTHER FERRER: Mariano Ferrer: kazetaritza eta konpromisoa



- 2023, Abenduak 18, astelehena
- 10:00
- ARRASATE (Kulturete)

GAIA

MARIANO FERRER (Donostia, 1939-2019) ezinbesteko erreferente gisa geratu da Euskal Herriko kazetaritzaren historian. 1971tik aurrera Donostiako Herri Irratian jardun zuen, hasieran *Radio Reloj* saioarekin, ondoren zinez ezaguna izatera iritsi zen *El Kiosko de la Rosi*-rekin.

Komunikatzaile aparta izateaz gain, bere ezaugarri behinenak izan ziren pentsamendu askea, edozein botere motarekiko kritikotasuna eta hainbat gizarte ekimenekiko konpromisoa (Elkarri, SOS -Arrazakeria...).

Mariano Ferrer, el periodismo reflexivo, kazetaritza eta konpromisoa liburuak (Erein, 2023) ez du agortzen Ferrerren ondare aberatsa, baina kokatzen ditu haren kazetaritzaren hainbat lorratz.

HIZLARIAK

Elixabete Garmendia Lasa (Ormaiztegi, 1953)

Nafarroako Unibertsitatean Informazio Zientzietan lizentziatua (1971-1976), *Zeruko Argia* astekarian lan egin zuen (1976-1981). Euskal Telebistan garatu zuen ibilbide profesionala (1986-2018), eguneroko albistegietan, nahiz zenbait saiotan (*Hemen eta Munduan*, *Euskadi Zuzenean*, *Bertatik Bertara*, *Postdata...*).

Kolaboratzaile izan da hainbat irati eta aldizkarietan: *Argia*, *Jakin*, *Emakunde*, *EuskoNews*, *RIEV*, *Ankulegi*. Gaur egun, *Berria*-n eta *Goierriko Hitz*-n jarraitzen du.

Argitalpenak: *Yoyes desde su ventana* (1987) liburuan koordinatzaile. Jaurkitzailearen *Bidegileak* bilduman hamabi ale. *36ko gerra Ormaiztegin* (Eusko Ikaskuntza, 2012). *Carlos Garaikoetxea, lider bat lehendakari* (Aleka bilduma, 2018). *nanoGUNE, txikiaren xarma* (CIC nanoGUNE, 2021).

Esther Ferrer Rizo (Donostia, 1981)

Deustuko unibertsitatean Giza Zientziak: Komunikazioan (2004) eta Euskal Herriko Unibertsitatean Zuzenbidean lizentziatua (2013). Bere ibilbide profesionala MEDIA (Creative Europe) Programaren Euskadiko ordezkari izan hasten du eta irakasle gisa jarraitzen du Deustuko Unibertsitatean, 2012an Madrilera joan aurretik.

Hamarkada batez Madril eta Milanen (Italia) kudeaketa akademikoari eta komunikazioari lotutako hainbat lan tartekatzen ditu. 2022an Donostiara itzultzen da doktoretza egiteko Deustuko Unibertsitateko Giza Garapenerako Aisia, Kultura eta Komunikazioa doktorego programan.

2021etik *Mariano Ferrerren Legatua* taldearen jarduera koordinatzen du, bere ondare dokumental eta intelektualari jarraipena emateko sortua. MFL taldeak 2022an 'Kazetaritza politikoa konpromiso sozial eta etiko gisa. Mariano Ferrer'; ikastaroa antolatzen du EHUKo UIK uda ikastaroen barruan. Ikastaro horren edukia izan dira 2023an argitaratutako *Mariano Ferrer. El periodismo reflexivo. Kazetaritza eta konpromisoa* liburuaren oinarria.

EKITALDIA PARTEKATU



Ekitaldiaren xehetasunak

, 0



EGUNA ETA ORDUA
2023 - 12 - 18 10:00



KATEGORIA
Hitzaldiak

ZURE AGENDAN SARTU